

E I B A R

Azitain eta Heybar

Artez nahiz antzinasunez ba dauka Azitaingo ermita zaharrak edozenbat* balio eta bakantasun. Eta, presbiterioan edonork irakurri ahal dauanez, Eibarko herria ei da aberastasun guzti horren jaun eta jabe. Begira bestela zer dinoan horman: «Esta ermita de la Asunción de Nuestra Señora de Azitain es una de las que tiene la villa de Heybar en su jurisdicción, cuyo dueño y patrón es la misma villa».

Klub Deportiboa

Eibarko Klub Deportiboa oraintsu egiteko berriel lotua da, Itsasoari dagokiozen egitekoei hain zuzen. Hiru talde berri eratu ditu. Honexek dira: Eskafandradunak, Igerlariak* eta Itsaspeko Arrantzaleak.

Gure aurrekoek aukera honeek hartu izan balituel izan ere, debora batean, egiteko horreek Sallabenten nahiz Ariatzako presan egin eitekezan. Gaur egun, ostera*, erreka behera, apurtxo bat urrunago joan behar izango dabe.

Filatelia

Oporketak* amaitu ondoren, bildu* berriak ei dira Arraten sei-
lo sorta zaleak. Ez genkian guk, filatelia zaleei hogeit eguneko oporketarik tokatzen jakenik. Beharbada, ez deritxoe euren buruari «siderometalurgikoek» baino gutxiago. Itxura danez, guk uste genduan baino aurreratuago dago lan erreglamentazioa.

Dana dala, bakoitza lotu bekio laketa* dauan arazoari.

«Haur besoetakoa»

Horreoz hartu eta gau berean irakurria dogu Jon Miranderen «Haur besoetakoa» deritxon ipuina.

Lehenengo orrian, ipuina hasi aurretik, Jon Mirande ez dan baten batek idatzitako eskari bat ere irakurri dogu. Honela dino: «Otoi, liburu hau haur* listoen eta gizon tontoen eskuetatik urrutit gorde bedi».

Bildur gara ez ote dan osterantzekorik Euskal Herrian.

Mendigoizale bat

Ba da mendizalerik ugari gure herrian. Mendizale ezezik, mendigoizale prestu eta amorratuak ere ez ditugu gutxi.

Azken honeetariko bat Eleuterio Muruamendiaraz dogu, maki-natxo bat aldiz eta edozenbat* lekutan omendatua*, oraintsu Urretxuan hain zuzen.

Horrez gainera, «Mérito Deportivo» dalako horri dagokion irudia irabazia dau gure Eleuteriok. Zorionik beroenak berari.

Mendizale gazteek ba dauke, bai, kementsu jarduten non ikasi.